

Gure helburua langabezia murriztea eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, herrialdeko ekonomia indartuz. Horretarako, etorkinei zuzendutako zerbitzu bereziak eskaintzen ditugu, dokumentazio faltak, hizkuntza-arazoak eta komunikazio-zailtasunak gainditzen lagunduz.

Gure proiektua beste enpresetatik bereizten da ikuspegi pertsonalizatu eta inklusiboagatik. Pertsona bakoitzarentzako egokitutako prestakuntza espezializatu eskaintzen dugu, lan-merkatuan beharrezkoak diren trebetasunetan trebatuz, hala nola lan-elkarrizketetan, kultura desberdinetara egokitzeko gaitasunean eta beste alor estrategiko batzuetan. Horrela, talde ahul baten behar zehatzak asetzen ditugu, enplegu zerbitzu tradizioaletatik haratago doan ikuspegiarekin.

Gainera, gure enpresak etorkinen eta beste enpresen arteko lotura egiten du, talentu egokia aurkitzeko aukera emanez eta lan-merkatuan lehiakortasuna hobetuz. Gure jarduerak gizarte justuago bat sortzen eta merkatu laboraleko hutsuneak betetzen laguntzen du, gizartean eta ekonomian eragin positiboa sortuz.

